



KARDABERAZ

EUSKALERRI ZAARREKO

Jainko Txikiak

A. Arrinda

KARDABERAZ LIBURUXKAK - 3

EUSKALERRI ZAARREKO

J A I N K O
T X I K I A K

KARDABERAZ LIBUR.UKKAK - 3

EUSKALERRI ZAARREKO

JAINKO

TXIKIAK

A. ARRINDA

GALTXA - GORRI

Udaberriko goiz alaitsua ta Gernika-ibaiaren ertzetik nebi-llen; lore baten gañean Galtxa-gorri ikusi nuan neri deika:

—Aizu, Euskaldun, norazoaz...?

—Ikusmira nabil, ta... zu zeñ zaitugu,.. ?

—Ni, Galtxa-gorri naiz. Ez al dituzu nere galtza gorriak ilcusten, ala... ?

—Mallubia ziñela uste nuan...

—Mallubia... ? Ja, jaiiii...! Txikia naiz ni mallubia izateko...

—Ta, zer zabilta zu, Galtxa-gorri... ?

—Ni beti gizonaren morroi ta gizonari laguntzen...jf

—Zertan...?

—Edozertan. Nik eta nere lagunek egiñ ez dezakegun gauzik ez dago.

—Ezer, ere, ez ? Ezer, ere, ez ?

—Egia esateko... dan-dana ezin dezakegu. Ona zer pasatu ziztaigun egun batean, Kortezubi'ko baserritar batekin:

Erosi ginduzten baserritarrak, soroan lan egiteko.

Agindu zigun lana egiteko. Lan ura amaitu ta an joan giñan berriro lan eske. Eman zigun beste biar bat. Akabau genduen. Beste bat... eta orrela, lau aldiz. Bosgarrenean etorri giñan baserritarrengana:

•—Zer lan egingo degu?

Etzekien zer lan aman, beriala amaitzen ba'giñuzten lan denak. Orduan agindu zigun ekartzeko ura galbaian. Asi giñan lanean, baña, alegiñak eginda ere, ezin genduan urik ekarri. Gelditu giñan, azkenik, agindurik bete ezin gendulako...

—Orduan, gizona zuek baño azkarragoa da... ?

—Guk, ordea, berak baño indar geiago...

—Ta, zu, ere, nerilaguntzekoalzaude...?

—Bai, orixe...! Zertan laguntzea nai dezu... ?
—Ni, Euskaldun gazte berria naiz, ta emengo berririk ez det...
—Nik emango dizut zuri Euskaldun zaarren berri...

SANTIMAMIÑE

Ori esatearekin batera, loretik nere eskura salto egiñ ta, bere beatzak in Kortezubiko mendi bat erakusi zidan.

—Mendi beltz ori ikusten dezu... ?

—Gallurrean ermita zuria duena...?

—Mendiaren izena Ereñusarre da, ta mendi orren egalean "Santimamiñe" koba-zuloa dago...

Artu nindun aidean, ta izugarritzko errun eraman nindun Ereñusarre mendira. An ikusi nuan leize-zulo aundi bat. Leizearen atakan, lapa ta txirla azalak ugari...

—Zer dira onek? —galdetu nion Galtxa-gorri'ri.

—Zera... zuen aurrekoak jandakoen arrastoak... Ez dezu, or been, Gernika'ko ibaia ikusten... ?

—Bai.

—Ta, an, beerago, itsasoa?

—Bai, ta

—Ba, antxen biltzen zituzten lapa ta txirla auek...

—Ta, ortikbizialziran...?

—Orretzaz gañera, arboletako frutu ta igaliak, lurreko belar ta sustraiak ere, jaten zituzten... Baña, eizetik bizi ziran batez ere...

•—Eiztariak al ziran... ?

—Bai.

—Ta, zer arrapatzen zuten eizean?

—Pizti ta abereak: zezenak bezela, bisonte, basauntz, zaldi, basurde ta beste asko ere, bai...

—Bisonteak... ?

—Bai, bisonteak ere, bai... Orain emen ez dago bisonterik, baña, orduan ba'ziran Euskalerrian...

—r-Ori, ipuien bat izango da...

—Ipuia... ? Etorri kobe barrura nerekin...

Sartu nindun leize-zuloko illunpe artara. Piztu zuan krisa-llua, ta, barru-barruan, ezkerreko ormatik gora, kuarto txiki batean sartu giñan biok.

—Enee! Oiek, zer dira... ?

—Zuen aurreko Euskaldun zaarrak egindako marrazkiak.

—Zenbat urte ote, egiñ zituztela... ?

—Amabi milla urtetik gora... Ezagutu nituan euskaldun aiek. Zuen antzekoak ziran...

—Ta, aiek aalmenik ba'zuten orrelako marrazki egoki ta ederrak egiteko...! ?

—Ala dirudi... Ara emen, aitatutako bisonteak... Ikusten al dituzu... ?

—Bisontekin batera, beste animaliak ere ikusten ditut. Ara, artza ta basauntza, ere...

—Ipuiak al dira... ?

#

Txoraturik nengoan marrazki aieri begira. Prekistoriko Euskaldun aiek etziran beti lo egon... Etziran nola-naiko artistak izan...!

—Aizu, Galtxa-gorri, ta animalien marrazkiak zergatik egin zituzten orrelako toki izkutueta...? Or kanpoan, argia dagon tokian, egitea ez al zan obe...?' Jendeak obeto ikusiko lituzke...

—Bafia, irudi oiek etzituzten egiñ jendeak ikusteko...!

—Zertarako, orduan... ?

•—Euskaldun aien elizatxoak ziran zulo auek...

—Elizakere,ba'zituzten...!

—Elizen antzekoak... Eizera irten aurretik, leizera etorri, ta leizeko illunpe onetan egiten zituzten beren otoitzak, animali auen aurrean,...

—Apaizik ba'zeukaten otoitzak egiteko... ?

—Aztiak ziran aien apaiz. Eta, otoitzak egiteko, mozorroz jazten ziran.

—Iñauteri ta Karnabalak al ziran ba, mozorroz jazteko...?

—Euskaldun zaarren aztiak mozorroz jantzita aztikeriak egiten zituzten beren koba-zuloetan; Zuek, berriz, (aaztu zaizute aztikeriak egiten) Iñauterietan, astokeriak egiten dituzute galantak...

—Ori ere, ala da ta eziñ ukatu... Baña, mozorroz jaztea orduko gauza izango da... ?

—Bai, orduko oituratik datorrena da... Gauza ura zertarako zan, ordea, aaztu zaizute...

A K E L n R R E A K

Orduan gogoratu zitzaidan nere Lekeitio'ko amonak esaten zidana: sorgiñak mozorroz jazten zirala akelarrera joateko, ta gure auzoko Benita, atso zaarra ere, sorgiña zala...

—Galtxa-gorri, sorgiñikbaalzankobaonetan...?

—Inguru guzian zegoan emen sorgiña ugari baña, Kristandadea sortu zanean, galdu ziran sorgiñik geienak... Banaka batzuek gelditzen gera oraindik...

—Zu ere, sorgiña al zera, ba... ?

—Nik, neronek ematen dizkiet azti ta sorgiñeri, eurak bear dituzten aal ta indarrak. Jostorraz-ontzi batean eramaten naute berekin.

—Ta, "*akelarreak*" egiten ziñuzten... ?

—Orduko "*akelarre*" aiekgaldu ziran...

—Nunizaten ziran "*akelarreak*"...?

—Zugarramurdiko koban egiten ziran oso akelarre fama-
tuak; baña andik aparte ere, izaten ziran...

—Nun... ?

—Larrun mendian, Ataun'go Mandobita'ko zubi azpian,, Orozko'ko Garaigorta'ko aitzean, Dima'ko Petralanda zelaian... ta bide-kurutze guztietan...

—Ta, zertzukegitendira akelarrebatean...?

—Ara, kontatuko dizut Bidarte'ko mutillari zer gertatu zitzaion beiñ:

Ostiral arratsalde batean, Txomin Bidarte andregaiia ikustera joan zanean, oñetako pare polita eraman zion Kataliñ'eri. Kata-

liñ sorgiña ote zan susmoa jaio zan errian; bafia, Txomiñ'i susmo oiegaitik ajolik ez. Ziranak zirala, bera Kataliñ'ekin ezkonduko zan... Bai, orixe...!

Oñetaoak oraindik amaitzeko zeuzkan, ta ekin zion lanari. Bitartean gaua eldu da, etxera biurtzeko ordua ere, bai... Baña, bertan lo gelditu zediñ, eskatu zioten Katalifi'en gurasoak: kutxa batean egingo zula lo,..

Gelditu zan.

Gau-erdian zer edo zerk esnatu zuan... Kataliñ zetorren anka-puntetan... Gerturatu zan sut-ondora, labatzapetik arri bat jaso, bertatik kutxatilla atera ta bertako olioarekin bere gorputza igurtzi ta onela esan bitartean:

"Laño gañetik eta odei azpitik".

Ori esanakin batera, tximiñtik gora, egaka, abiatu zan.

—Oraintxen dakit Kataliñ'en berri, zion Bidarte'k. Ta, Kataliñ'eri egiten ikusitako guziak egiñ zituan berak ere. Bere burua ikusi zuan airean, mendien gañetik, zelai zabal bateraño... An ikusi zituan ikustekoak... ! Jende apaiñ askoren artean, an zeuden bere lagunak ere, Kataliñ'ekin batera. Soñeko gorriakin zebillen Kataliñ.

Izkututik (ez bai zuan ausardirik bistara agertzeko) gauza asko ikusi ta ikasi zituan.

Aker-beltza erdi-erdian zegon.

Ta etorri zan akerrari agur egiteko ordua. Banan-banan, bata bestearen ondoren, akerrari atzekoaldean muñ ematera, eldu ziran.

Etziola berak muñik emango, zion Bidarte'k bere-kasa.

Txanda etorri zitzaionean, zorroan zekarren labaña atera ta sartu zion akerrari atzekoaldetik...

Akerraren orruak...! Bat-batean, argia itzaldu ta sorgiñak izkutatu ziran...

Bidarte bere onera zanean, larrartean etzanda ikusi zuan bere burua... Etzaio oraindik sustorik pasa,..

#

Sorgiñak etzirala ta, nengoan pentsatzen... Zer esango ote zidan Galtxa-gorri'k arazo arreri buruz,.. ?

'—Nere aitak esateri zuan Eibar'ek galdu zitula sorgiñak...
Egiaalda?

—Eibar'en egiten dituzten arma motzak eta pistolak, gezu-
rezko sorgiñ-lapurrak galdu zitun... Besteak, ordea, ermitak eta
elizak galdu dituzte,..

—Ara or beean, beste ermita bat, Galtxa-gorri...

—Ori, San Mames'en ermita da. Ortik datorkio "Santi-Mami-
ñe"ri bere oraingo izena, ta koba-zulotik gertu jaso zuten...

—Ta, an goiko tontorrean dagoan ura... ?

—San Migel'en ermita da,.. Bi ermita mendi bakar batean,
aztikeri ta sorginkerien kontra... Kontuak atera, zenbat sorgiñ bi-
zi zan inguru auetan...

—Ain gaiztoak al ziñaten... ?

—Ez giñan oso onak izango... Baña, gure arrastorik ez da
oraindik Euskaldunen artean galdu...

—Ezetz...? Nola, baña, ainbeste urte pasa ba'dira arrezke-
ro...?

—Zuenai eusteko. Zuek bezelako erririk eztira bi jaio mundu-
an, da...

—Ez dizut, ba, ori sinisten: gure artean sorginkeririk dagoa-
nik, alegia...

—Ez didazula sinisten...? San Mames ermita ikusten dezu
or aurreko muño orretan... Santimamiñe'ko koban egiten ziranak
(edo aien antzekoak)San Mames'en ermitan egin oi dira: errome-
riak, errogatibak, konjuroak...leizeko indarrak ermitara pasa zi-
ran... Ames txarren kontrako indarra da bat... Begira zer esaten
duten baserritarrak:

"San Ames,
bart eiñ dot
: ames.
Onaba'da
bion partez
txarra ba da
beyu artez,.."

MARI, ANBOTO'KO SORGIÑA

Galtxa-gorri onek asko daki ta Anboto'ko Sorgiña'ren berri ere, emango didala uste det.

—Aizazu, lagun zaar, Anboto'ko Sorgiña bizi al da... ?

—Anboto'ko Sorgiña ta Murumendi'ko Damea, biak bat dira. Ta, "Mari" du bere izena...

—Izen polita du, "Mari".

—Aren menpean bizi gera gu-ta, beste sorgiñ klase guziak... Bera da gure erregiña...

—Emakumezkoa al da,.. ?

—Ta, oso ederra... Leize batetik bestera, odei artean dijoanean, sua dariola juan oi da...

—Etxe asko al ditu, ba?

—Euskalerriko koba ta zulo guziak bere etxe ditu. Bera, lurpeetako eremuetan bizi da; ta andik irtetzeko atea, leize ta kobazuloak ditu...

—Aberatsa izango da,..

—Oso da aberats...' Leizearen atakan egon oi da bere illeak urre gorrizko orrazeakin orrazten... Ba'ditu ere, urrezko krisallu, urrezko errada, urrezko matasak, urrezko sukalde-ontziak...

—Ezdaurregutxi...!

—Koba-zulo barruan ikatza gordeta dauka, ta kobatik kanpora urre biurtzen da ikatz ori. Ala gertatu zitzaion Markiña'ko neska bateri.

Beñ batean juan zan Gabaro'ra, ardizañera ta kobaren ondora juan zanean, Anboto'ko Señoriak barrura sartu zuan, ta antxe azi zuan neskatilla ederra. Bertan neskak egiten zuan biarra zan gorua egiñ ta gorua egiñ, ta sekula etzan kanpora irten. Berak nai zitu guziak kanpotik ekartzen zizkion Señoriak.

Goiz batean esan zion Sorgiñak: "kanpora irten bear dezu oraintxe". Berak etzuan irten nai, ondo zegoala ta... Ta kanpora irtetzeko prantatu zanean, Señoriak esan zion:

—Artu zazu ortxe esku bete ikatz.

Neskak erantzun:

—Zertarako dut nik ikatza?

Artu zuan, ta kanpoan eskura begiratu zuanean, dana urre gorritz beteta zeukan...

—Mari, ona al da... ?

—Bere aginduak betetzen dituenentzako, bai, ona da.

—Ze agindu... ?

—Auek dira Mari'ren aginduak:

Gezurrik ez esan.

Lapurketarik, ez.

Arrotasunik, ez.

Emandako itza bete bear da.

Gizakumeari errespetoa bear zaio.

Auzo artean alkarri lagundu...

Orra, Mari'ren zenbait agindu eder...

—Ederrak dira, Galtxa-gorri,..!

—Bera ere, ederra ta ona da. Ba'dakizu, ur billa zebillen artzai bateri zer egin zion Mari'k?

—Ez, ez dakit.

—Egari zalako, ur-billa zebillen Burumendi'n. Leize ondoan andre gazte bat ikusi zuan apainduriz ta ederrez jantzita.

—Zeren billa zabiltz? —dio andreak.

—Uraren billa. —erantzun zion artzaiak.

—Uraren billa? Sagardoren billa esan naiko zendun.

Besterik gabe, ekarri zion pitxar bat sagardo.

—Auxe bai, sagardo bikaña. Nungo sagarrekin egin dezu?

—Ikastegietako Montes etxeko jaunak EZARI emandako sagarrekin. —Erantzun zion Mari'k...

—Ta, EZARI emanak'zer dira?

—Gezurra esaten duanari Marik kendutako gauzak dira EZA' Rlemanak...

•—Ori al da Mari'ren zigorra?

—Bai, ori Mari'ren zigorra da; baña ba'ditu berak beste zigor batzuk ere...

—Zezigor...?

'—Geien gustatzen zaion zigorra ekaitza da. Tximista ta arri-
jasakin batera Oñeztarria maite du...

•—Oñeztarria... ?

—Tximistea da. Mari'k zerutik botatzen duen arrizko aizko-
ra da oñezt-arria...

—Aizkorabat... ?

—Bai, aizkora bat. Orregatik, etxe atarian aizkora bat, aoz-
gora, jarri ezkeru, ez da tximistarik etxe gañera eroriko... Ori ere,
ez zenekizun?

« * #

Santimamiñe kobako marrazkiak nituan buruan, ta Galfxago-
rri'k igarri zidan zer ari nintzan pentsatzen.

—Aizu, Euskaldun, Mari ez da beti andre bezela agertzen.

—Ez... ?

—Leize atakan edo atarian dagoanean, emakumea da; baña,
leize barruko illunpetan, animaliz jantzita ikusi oi dute...

—Ze animalien jantzi... ?

—Zezen ta bei gorriena...

—Bei gorrien kontua nik ba'dakit.

—Ia, ba, Euskaldun, esaidazu kontu ori...

—Beiñ batean, bei-zai zegoan Irari'ko alabea. Eta gero, bei
paltan etorri omen zan etxera.

Birao egiñ zion ugezamak etzala geiago etxean sartuko beirik
gabe... Iñularrean, bei billa juan zan ta billatu zun bere bei-figu-
ra gorri-gorria. Ta eldu zion isatsetik.

Gero, pigura berekin, zulora sartu zan.

Etzan neska azaldu aldi batean.

Eta, zulo orren atakan, illea orrazten ikusi zuten artzaiek.
Etxera deitu zioten gurasoei artzaiek, neska nun zegoan.

Ateratzeko esan zioten gurasok neskari.

Eta, neskak txerri gorri txiki bat zuan aldamenean. Eta ura
esnatzen baldin ba'zan, galduko zituala esan zien gurasoai, ta alde
egiteko...

—Bei gorri ta txerri txiki, zaldi zuri ta aker beltz, ari edo su-
ge... Mari dira denak...

—Semerik ba'du Mari'k... ?
 —Bi diru: Atabarri ta Mikelatz. Bata ona ta bestea gaiztoa. Ba'dakizu Lazkau'n zer gertatu zan bein... ?
 —Ez, nik...
 —Mari'ren seme ona apaiz egin zan, ta bein, Senpere ballararik zijoala, agertu zitzaion beste anaia esanaz:
 —Gariak ederrak daude, baña ba'ditut gari oek joko dituzten zaldi galantak...
 —Bai nik ere, zaldi oiek geldi-araziko ditun freno indartsuak... Etxeratu zanean esan zion apaizak bere neskameari:
 —Murumendi gañetik odeien bat sortzen ikusten ba'dezu, abixatu eidazu beriala.
 Alaxe gertatu zan.
 Murumendi aldetik sortu zan odeia. Apaizak konjurua egin zion; baña, alperrik: kazkabarra, kazkabitoa, txingorra ta arria etzan gelditzen. Orduan apaizak bere oñetakoa kendu ta baratzara bota zuan, onela esanaz:
 —Sartu ditezela or,..!
 Arri guzia apaizaren baratzan sartu zan; baña, erriari etzion kalterik egiñ...

#

Mari'k seme bat apaiz ba'zuan, bera kristau zintzoa izango zala uste nuan. Bada ez pada Galtxa-gorri'ri galdetu nion:
 —Ta, Mari kristau al zan... ?
 —Jentilla zan, ta kristau biurtzerik ez zuan nai izan. Ara zer gertatu zitzaion:
 Beñ, bere senarrak gurdi bateri lotu ta, elizara ekarri zuan baitaiatzera, bere semeekin batera. Baña, elizara eldu ziranean, sutan jarri zan Mari ta, lokarriak erreta, aidean juan zan bere Murumendi'ko kbbara, onela ziardula:

Matias Muru'ko,
 nereumeak
 zerurako;
 ta, niorain
 Muru'rako...

Kristautasunari etzion eder-etsi. Naiago zuan bere leize-zuloko jentil bizitza,..

—Ta, arrezkero an bizi al da... ?

—Bai, an bizi da, elizara etorri gabe.

—Ez al da asarretzen... ?

—Aldika asarreak izaten ditu; baña, oraingo alditan ez du leenago zuan indarririk...

MARI'REN MORROIAK

Mari'ren indar eta aalmenak nituan buruan. Mari'k izango zitun morroi ta neskameak ere... Galtxa-gorri'ri galdetu nion:

—Aizu, Mari'k izango ditu morroiak...

—Morroi ta neskame ugari...

—Zeiñ dira... ?

—Ni ta nere lagunak gera Mari'ren morroi...

—Ori, lenago ere, esan zidazun. Baña ba'du besterik... ?

—Lamiñak, Basajaunak, Jentillak... Asko dira...

•—Lamiñak, zer dira... ?

—Sorgiñak dira. Ibai-ertzetan bizi dira. Eta, zubiak egiteko, aparteko trebetasuna dute...

—Injenieroak al dira ba, zubiak egiteko... ?

—Zubi oso bat egiteko, lamiñak ez dute gau bat besterik bear, ollarrak kukurruku jo arte. Ba'dakizu zer pasatu zitzaien egun batean... ?

—Zer... ?

Arroza'ko zubia egiten ari zirala, aizkeneko arria jartzeko zegola, ollarrak jo omen zuan. Lanari utzi ta, laisterka alde egiri bearra izan zuten; ez, orratio, ollarra madarikatu gabe:

"Martzoko ollar gorria,
madarika ikala mihia (mingaña)".

Ori esan da gero alde egin zuan...

#

—Ta, Basajauna zein da... ?

—Basajauna, gizon aundi illeduna degu; koba zuloetan bizi dana. Aspalditik zekiten Basajaunak garia ereiten eta ogi zuri gozoa jaten. Gari arren inbiritan zeuden kristauak ta, begira, ze asma zuten Basajauneri garia arrapatzeko:

Muski'ko koban, Basajaunek bizi ziran. An gallurreko lurreak erabillita, sekulako gariak biltzen zituzten. Bee-aldeko lurretan Kristauak bizi ziran, ta, artean etzuten garirik ereiten, gal-azirik ez ta.

Bein, Sanmartin Txiki, botin aundi batzuek jantzita, igo zan Muski'ko kobara; ta, ango garipillak ikusi ta, zeinek saltoa ariñago pasatu, Basajaunekin apostu egiñ-zuan.

Baita, Basajaunek berealdiko erreztasunez pasa zuten; Sanmartin Txiki, berriz, gari pillaren erdian erori zan; baño, baita botin guziak gal-alez bete ere...

Kristauak etzekiten noiz erein; baño alako batean, Basajaun bateri aditu zion, algaraz esaten:

—Ja, ja, jaiiii...!

Ba lekia, artuko likenea:

Or irtete, arto ereite;

or erorte, gari ereite...

Ordutik zabaldu zan garia erri guztietan...

#

—Asko dakizu, Galtxa-gorri...!

—Urteen poderioz ikasi ditut dakizkidanak...

—Ta Jentillak ere, ba omen ziran Euskalerrian... ?

—Bai, ba ziran...

—Ze tipoko jendea zan... ?

—Oso indartsuak aiek ere, Basajaunen antzera. Esango dizut bein zer gertatu zitzaion Zerain'go Arrola baserriko jentillari.

Joan zan gari billa Araba'ra.

Idi-narm bat gari, bizkarrean zuela zetorrela, bere alabea topatu zuan aurrez^aurre Zerairi ta Zegama'ko atnugan.

—Atsedean egizu ura edan artean. Esan zion alabak.

—Jakin izan ba'niñ atsedentzea zer zan, beste ainbeste gari ekarriko niñan.

Buruan zeukan erradatik eskeiñi zion ura alabak eta erradabaldea urarekin irentsi zuan aitak.

—Nun degu baldea? Galdetzen du alabak.

—Apurren bat irentsi ote diñadan iruditu zatan..

Indar aundiak zituzten, baña lepa-zamarra ere, etzuten txikia...

—Bai, ala iruditu zait neri ere...

—Beste beñ ba dakizu ze gertatu zan Murumendi'ñ...?

—Nik ez dakit ezer...!

—Ba, pelotari batzuk pelotan zebiltzen. Ta, jentil bat juan zitzaien ta gakletu:

—Zer egiten dezute emen?

—Pelotan jokatu. Erantzun zien.

—Arriauzertarakodezute?

—Sakarrirako. ("Largoan" jokatzan zariean sakerako zegoan arriaundibat...).

—Berau ere ez dek txarra peloten eran botatzeko.

Ta, artu eskutan sakarria ta berealdiko erruan Aralar aldera bota zuan: Zer iruditzen zaizu... ?

—Ba zuela ark indarra ta sasoi! Ta, aberatsak al ziran...?

—Beuren kobetan ba zuten urrea ugari. Emen bertan, Santimamiñen, ere, idi-narrua bete urre gorri zeukaten,..

—Orain ez da jentillik eta orduan, bai... Zergatik galdu ziran Jentillek... ?

—Ataun'en gertatu zana esango dizut gauza orreri buruz.

Jentillak Leizadi'ko koba batean bizi zirala, sekulako izan eder bat odaietan agertu zan, :

Alako izarra, ikusi zutenean, jentill oiek erabat ikaratu zirari, ta munduan zer gertatu bear ote zuan ezin asmatu zebiltzen.: •

Alako batean, koba barruan erdi-itxututa zegoan jentil zaar bat ataka aurrera atera ta, zabaldu endaiekin betazalak, ta odeietara begira jarri zuten, antz emango ziola, ta.

Baita, ikusi orduko, deadar egiñ:

—A,'ene umek...! "Kixmie" jaio dek, galduak gaituk orain-
txe. Bota nazazute ni emendik gain-bera.

Jentillek Jesukristori "Kixmie" deitzen zioten...

Gero, Kristiandadea munduan zabaltzen asi zanean, jentil da-
nak sakabanatu ta bereala galdu ziran...

Ta, zure jakin-miñ ori ase al dezu, Euskaldun,.. ?

—Aiskeneko galdera bat egingo dizut, baldin galdetzen uz-
ten ba didazu...

—Galdetu, galdetu...!

—Tartalo'ren izena aitatu didazu leenago. Zein zan Tartalo
ori?

—Tartalo, gaiztoa zan. Kopetaren erdian zeukan begi bakar
aundi bat ta Aizkorri'ko koba batean bizi zan...

—Zergatik esan didazu Tartalo gaiztoa zala... ?

—Tartalo'k mendiko piztiak jaten zituan; baña kristauren
bat arrapatu ezker ere...

—Jaten zituan... ?

—Bai, orixe...!

—Ta, bizi da oraindik... ?

—Esango dizut nolatan il zan:

Beñ bi anai arrapatu zituan.

Biak, mutill gazteak.

Kobara eraman, atea itxi ta, aietako bateri burrunzia sartu,
ta erreta jan zuan. Besteari, berriz eraztuna jarri zion beatz batean,
eziñ kentzekoa.

Bazkalondoan loak artu zuan Tartalo...

Orduan, beste anaiak, bizi zanak burrunzia sutan goritu ta
bere begi bakarretik sartu zion Tartalo'ri.

Tartalo'ren orru ta garraxiak...!

Itxu gelditu arren, indarrik ez zitzaion palta, ta mutillaren
billa zebillen; ardi-narru pilla batean gordeta zegoan gure mutill
ori. Mutilla errezago billatzeko, Tartalo'k ardi-narruak kobatik
kanpora bota zitun. Baita mutilla ere, narruekin batera.

Ekiten dio mutillak aldapa-beera korrika. Baña, beatzean ze-
raman eraztuna asi zan deika:

—Emen nago...! Emen nago...!

Deadar oietara, Tartalo laisterka mutillaren ondoren. Mutillak bere burua arrixkuan ikusi zuanean, beatza ebagi ta, eraztun ta guzti, putzu aundi batera bota zuan... Baita Tartalo ere, eraztunaren atzetik, putzura,.. Bertan itto zan...

Zure aizkeneko galderari erantzun diot, eta nere bearrik geiago espadezu, agur...

—Agur, Galtxagorri maite, agur...!

Besterik gabe aldendu zitzaidan Galtxagorri Santimamiñe koba zuloan barna... Ta, gelditu nintzan Gernika ibaiari begira. Zenbat gauza erakutsi zidan unetxo batean...! Ta, zenbat orrelako daude oraindik illunpean gordeta...!